

## Pilar Barandiaranen emaria

### *Jexux Aizpurua Barandiaran*

*Jose Miguel de Barandiaran Fundazioko kidea*

Pilar, Joxemiel Barandiaranen iloba izaki, 1936ko gerra eta gerraondoko gertaera anitzen testigu izan zen; bidez batez, osabaren ikerketa-lanetan nahitaezko zutabe. Tartean, konpromiso handiko betebeharrak egin behar izan zituen, bertatik bertako informazioa jasoz eta bahituta ziren hainbat material eskuratuz.

Neure ezaupidetik abiatuta landu nahi nuke artikulu hau, urteen poderioan gauzak, pentsamenduak, pertsonak, itzalak... ezkututzen doazen neurrian, geure oroi-menari astindutxo bat eman asmoz, halako batean “bizi gara” oihuka dezagun.

Pilar 1970ean ezagutu nuen, bere osaba Joxemielekin indusketan hasi ginenean. Harrezkero, etxeko izan gara. Zenbat bider ireki ote digu sukaldeko atea! Bai osaba ikusteko nahiz berarekin solasean jarduteko.

1911ko otsailaren 11n jaio zen Ataungo Murkondo auzoko Peruenezarre base-rrian. Gurasoak: Inazia Antonia Maria Kruz Barandiaran Dorronsoro eta Jose Antonio Barandiaran Aierbe, hain zuzen, Joxemielen anaia. Pilar bi senideetan gazteena zen; biak neskak.

Osaba 1936ko irailaren 20an joan zen Iparraldera eta horrexek aldatu zuen Pilarren destinoa. Joxemielek Gasteizko Apaiztegia irakasle-lanetan jardun bazuen, ez zuen halako etorkizunik izango; halabeharrak, ordea, ustekabeak izaten ditu.

Pilar, etorkizuna lantzeko, Miarritzera joan eta 1937ko ekainaren 26an Hossedor-eko ostatuetan zerbitzari-lanak egiten hasi zen. Barandiaran, berriz, 1937ko martxoan Manuel de Ynchausti mezenasen aholkuz Hegoaldetik zihoazen errefuxiatuak galdekatzen hasi zen, hainbat lekutako gerra- informazioa osatuz; horretarako, Miarritzeko Endara egoitzara sarri joan ohi zen.

Joxemiel Miarritzen Rufina ilobarekin zegoen, baina 1939ko ekaina ezkeren Pilar geratu zen osabarekin. Asmoa Gasteiza nola edo hala itzultzea zen, baina pixkanaka egitasmo hura bertan behera utzi beharra izan zuten. Desterruaren mina ez ezik, bertako agintarien ezin-ikusia areagotzen ari zen, Frantziaren kontura ezin zirela bizi argudiatuz. Bestetik, Bigarren Mundu Gerra bizi-bizian zegoen; alemanak bazetozen Normandiatik Frantzian barrena.



(Jose Miguel de Barandiaran Fundazioa)

Destinoa, berriro. Aurreko egunetan euskal eta espainol errefuxiatu asko Gürseko kontzentrazio-esparrura daramatzate. Eusko Jaurlaritzaren Miarritzeko Endara egoitza itxi eta bertan lanean jarduten zuten 48 urtez azpikoak ere Gürsera eraman zituzten, euskal argitalpenak debekatuz; Jaurlaritzakoek bi tona paper erre zituzten. Giro honetan, Joxemiel Barandiaranek Biarritzeko Polizia-etxera joateko agindua jasotzen du Frankoren aurkako apaizak Frantziako Iparraldeko eskualdeetara igortzeko asmoz. 48 ordu dituzte abiatzeko. 1940ko maiatzaren 31. Normandiara desterratu zituzten Frantziako agintariak. Pilar iloba triste eta jota geratzen da.

Ekainaren 21ean itzultzen da Joxemiel Normandiatik, alemanengandik ihesi. Eta errefuxiatuengandik jasotako testigantza-material guztia Uztaritzeko oilategi batean lurperatzea izan zuen lehendabiziko lana. 27an sartu ziren alemanak Miarritzen; osaba-ilobak bizi ziren herrian.

Bitartean, Pilar tarteka Ataun bere jaioterrira joaten zenez, hango berri ere ekaritzen zuen, besteak beste, gerraren ondorenak; heriotzak, giroa, gosea, Barandiarani buruz ziotena e.a. 1940ko azaroaren 29an Barandiaran eta iloba Pilar Sarako Ibarso-roberria etxaldera joan ziren bizi izatera.

Arestian aipatu bezala, Pilar tarteka Atauna joaten da eta, bitartean, bertako berriak dakartza. 1941eko abuztuaren 3an, hain zuzen, bi gertakari bizi beharra izan zituen; bata, Ataunen Barandiaranen jaiotetxe zen Peruenezarre baserrira guardia zibilak joan zirela bere bila eta herriko *Jefe Local del Movimiento* eta Gipuzkoako Gobernadore zibila ere bere galdezka zebiltzala. Hara zer dioen horretaz Joxemielek: “1914an irratia desmuntatzeko ordena eta orain ni desmuntatzeko, agian.” Bestea zera zen: Barandiaranek Gasteizen zuen iker-materiala eraman nahi zuen Sarara, eta horretarako, Pilarrek mugan arazorik izan ez zezan, Donibane Lohizuneko Kreiskommandanteari idatzi zion. Pilarri ez zioten utzi materiala pasatzen aduanan separatista batenak zirela eta atzerrian lan egiten zutenek zigorra merezi zutela argudiatuz. Azkenik, irailaren 1ean ekarri zizkioten alemanek Irungo mugan bahituta zuten materiala. Horietaz gain, Joxemiel Barandiaran frantziar *makisard*-ek hil zuten berria ere zabaldu zen Ataunen.

Pilar etxean ez zenean, batez ere, Barandiaranek egin behar izaten zituen etxeko lanak. Abenduaren 27an Pilar Miarritzera joanda zenez, etxea zaindu, egurra txikitu, oiloentzat eta konexuarentzat jana prestatzen eman zuen eguna.

Pilarrek behin baino gehiagotan aipatzen zituen osabak mendian izaten zituen estutasunak. Abenduaren 10ean Lizuniaga aldean zebilela alemanek “RAST” bota, une batez gelditu eta korrika etxera alde egin behar izan zueneko. Hara zer dioen Barandiaranek bere egunerokoan:

*“1942ko martxoaren 10ean Olain menditik nentorrela soldadu alemanek atxilotu egin naute Ittun-arri aldean. Ez dira konturatu nire pape-retan Jantzen Miarritzeko Aussenstelle-ak emanda ikerketarako mendiotan ibiltzeko dudan baimena. Bat nirekin geratu da, besteak informazio bila joan diren bitartean. Lau oren igaro eta azaltzen ez zirenez, etxera joaten utzi dit, paperak kendu ondoren, biharamunean Bexiene etxean zuten Grenzaufsichtsstelle-aren bulegora azaltzeko aginduz. Hala, Grenzaufsichtsstelle-ra joan nintzen eta han komandanteak eta tenienteak desenkusatu egin zitzaizkidan, soldaduek izandako jarreragatik, ez baitzituzten ezagutu mugan ibiltzeko baimen-paperak”.*

1947ko azaroaren 17an Pilar Dantxarienean atxilotu zuten Frantziako mugazainek. Ainhoan bizi zen Martin Elso historiazaleak utzitako bizikletan heldu zen Sarako etxera eta biharamunean, hori zela-eta, osaba Joxemielek Baionako gendarmeriara joan beharra izan zuen deklaratzera eta, ondoren, bizikleta itzultzera Dantxarienera, Jon Bilbao lagun zuela.

Aipagarria, benetan, zenbat eta zenbat iheslari iristen zitzairen etxera babes eske. 1948an, adibidez, 215 otordu eman zituzten.

## JAIOTERRIRAKO ETORRERA PRESTATZEN

Nahiz eta Hegoaldetik iristen ziren albiste zalantzakor eta txarrak kontuan izan, hainbat adiskide eta elkartek Joxemiel Barandiaranen beharra zuten, etenda zeuden hainbat ikerketa berregiteko. Batzuk Sarara joaten zitzaizkion itzultzeko eskatuz eta beste batzuekiko harremana Pilarrek egiten zuen.

Azkenean, Barandiaranek, batez ere zahartzarorako eta Pilarrek ere gerora non bizi izan zezan, Ataunen etxe bat egiteko asmoari heltzen zion eta, horretarako, 1950eko maiatzaren 11n Pilar Atauna izan zen, etxe berria egiteko asmotan tratuan hasteko. Hainbat joan-etorriren ondoren, urriaren 24an etxea egiteko lurra erosi zuen. Lur-jabearekin, harginarekin eta arotzarekin Pilarrek berak egin zuen tratua eta 1951ko uztailean hasi ziren etxea egiten. Gerora Sara izena ezarri bazion ere, Barandiaranen hasierako asmoa IKASTEGI jartzea izan zen. Abuztuaren 24an egin zuten “trapalea” edo etxeari teilatua egindakoan egiten den otordua; hain zuzen, Peruenezarre base-rrian; Pilar izan zen arduradun.

Barandiaran, ordea, larri gaixotu eta etorrera atzeratu beharra izan zuten. Hil-zorian izanik, odola sartu eta etsipenak jota geratu ziren. Azkenean, 1953ko urriaren 20an abiatu ziren Lapurdiko Sara herritik Ataungo Sara etxera.

Geroztik, 1991n osaba hil arte, laguntzaile izan zuen eta handik aurrera, 2008an bera hil zen arte, Barandiaranen ondarearen zaintzaile eta fundazioko kide. 2006an JMB Murkondo kultur elkartearen omenaldia eta Juan Gorritiren zurezko eskultura ezarri zuten Sarako etxe-atarian.



Peruenezarreko sukaldean (1963). Argaz: Daniel Grenholm /Lannart Olson. Basker. Argibel Euba Ugarte

**PILARREN TESTIGANTZAK**

1999an argitaratutako *Barandiaran* biografian, hartarako Pilarrek idatzitakoa doa ondoren:

*“Urte batzuk badira osaba hil zela, baina ezin ditut ahaztu berarekin bizi izandako urte luzeak. Asko ikusi, asko ibili eta asko ikasi dut garai horietan. Lagun asko eta handiak egin ditut.*

*Etxean bakoitzak bagenekien geure eginkizuna, bakoitza bere lanean. Gauza asko aipa ditzaket osabari buruz; hala ere, bat nabarmenduko nuke guztien gainetik: apaltasuna. Hainbeste omenaldi, sari eta ohore, hainbeste bisitari ospetsu izan arren, nahiago zuen etxearen epeltasuna. Komunikabideetan bere irudia eta izena behin eta berriz azalduagatik, nahiago zuen edozein herritarrekin inguruaz, eguraldiaz eta eguneroko bizimoduaz solasean aritzea.*

*Etxea asko maite zuen, liburuak, paperak, ikerketa... beti aritzen zen zerbaitetan-eta; hala ere, lanik ezin bukatu. Eta norbait zetorkigunean, atea beti zabalik.*

*Oraindik ere, badirudi, hementxe dabilela eta egia da. HEMENTXE DABIL.*

*Bukatzeke hauxe esan nahi nuke: eskerrak osabaren laguntzaile izan diren guztiei eta oraindik ere, bere lanen inguruan Euskal Herriaren ikerketan ari direnei eta, bereziki, liburu hau egin duten osabaren bi lankide eta adiskide ataundar hauei; mila esker!*

*Pilar Barandiaran*

*Ataun, 1998ko abenduaren 31*

**OSAGARRIAK (SARAKO NEURE BIZIPENAK)****1991ko urriaren 4a**

Seiak laurden gutxietan iritsi naiz Sarara, atzo Santi Etxeberriak jakinarazi baitzidan Joxemielen makaldia. NA matrikuladun autoa aparkalekuan eta atarian Pilar eta Aiako *Praixkoenekoenea* baserriko Pedro Begiristain apaiza hizketan. Pilarrek salara eramane nau eta berehalaxe esan dit gora ez nauela eramango. Lasa eta Etxenike medikuak izan omen dira eta bisitaririk ezetz, agindu omen diote. Ondo omen dagoela dio Pilarrek, baina anemia du. Jendea ere ez du ezagutzen; Pilar bera ere batzuetan ez. Medikua-eta ikustean argitu egiten omen da. Egunik gehiena lo pasatzen omen du. Pilar beldurrez dago etor daitekeenaz. Berak askotan esan duen bezalaxe: *“etxetik elizara eta kitto”*. Udaletxean hilotza jartzeko kontu hori, ezta pentsatu ere... Hori

bai, gorputza ikusi nahi duenari ez dago ukatzerik. Horrelako hitzak dabilta Pilarren ahotan. Askotan elkarrekin hitz egindakoaren seinale.

### **1991ko urriaren 11**

Eguraldi oso txarra, euria noiznahi eta zaparrada handiak. Erreka ibai, hazita doa. Fundaziokoak biltzen hasita omen daude, Joxemielen beheraldia dela-eta; hala esan dit Lander Imaz zinegotziak.

### **1991ko azaroaren 29a**

Arratsaldeko seiak laurden gutxietan, ilun-mugan, iritsi naiz Sarara. Pilarrek zelatan egin du Joxemielen gelatik. Iberondoko Pedro Begiristain apaiza ere etxean zegoen eta aurre hartantxe eman dio “*jauna*”; Pilarrek ere hartu du. Kandela ez dagoela ondo, esan dio Don Pedrok Pilarri. Joxemielek ezagutu nau. Dotore dagoela esan diot. Dotore egoteko Doktore izan behar den, galdetu diot. Barre egin dit. Arabako Gupegi herrixkan, garai hartan euskaraz hitz egiten omen zen. Oso argi zegoen. Orduaren arrastorik ez dauka. Txintxo begiratzen dio, ordea, erlojuari. Betaurrekoen armazioa duela bi-hiru urte jarritakoak omen ditu

Gauerako laguntzaile ona du Azpeitiko Begoña moja. Don Pedrok kalakasentar aidea hartu dit. Seietan laranja-ura hartu du ohean bertan eserita. Pilar bera ere, aldakako desgastearekin eta eztarriko minez dabil. Bere buruari ere kasu egiteko, esan diot.

### **1991ko abenduaren 17a (asteartea)**

Euskadi Irratiko zortzietako albistegian Joxemielen gaixoaldiaren berri eman dute; larri ote dagoenaren zurrumurrua. Anaia Joantxok deitu dit, Sarara joan beharrean dagoela esanez. Bart gauean ere Iztatorko tabernetan beste konturik ez zegoen. Eserita solasean aritu gara Manuel Dorronsoro, Koldo Imaz, Fermin Aramendi, Joxan Goikoetxea, Iñaki Eskisabel eta seiok. Ia inor ez da izan tabernan, andoaindar albaitaria eta butano-banaketan ibiltzen den beste sangregoriotar bat. Albiste guztietan aipatu dute Joxemielen egoera. Gaueko *Ganbara* saioan hitz egin du Jon Aizpurua kazetariak Saratik zuzenean. Nahiko albiste onak eman ditu.

### **1991ko abenduaren 18a (asteazkena)**

Hamabiak aldera Saran izan naiz. Sukaldean ziren Pilar, Mariatxo, Gurutxi Arregi etab. Tarteka Pilarri burura “heriotza” zetorkion. Noiznahi telefonoa hoska eta bisitak. Bi erizain ari dira Joxemiel zaintzen. Gauez gizonezko bat egon omen da. Sukaldean ziren, besteak beste, Joxe Begiristain, Jon Aizpurua eta beste kazetari bat. Manuel Ynsausti zenaren alarguna ere etorri da. Nafarroako hizkuntza-politikaren arduraduna ere bai. Mikel Atxagak ere deitu omen du. Elisabete Garmendia ere etorri da ETBrako lan egitera.

Joxemielek, dagoeneko, ez du ikusten; mozorro eta guzti omen dago, argialdi eta ilunaldiak nahastuz.

Eguraldi umela eta lausoa. Elormendietzeko Anjel Arratibel txirrinduz etorri zaio bisita egitera.

Etixerakoan plazan ETBkoak hartualdia batzuk egiten ari ziren. Bidebietako Jexux Goikoetxeari eta neuri ere galdera batzuk egin dizkigute. Geroxeago, Joxe Manuel Tatori ere bai.

Jon Aizpurua ez da gaur Donostiara joan lanera, Saran bertatik aritu da, Eneko Sansinenearen laguntzaz, zuzeneko konexioak egiten.

### **1991ko abenduaren 21**

Joxemiel Barandiaran Aierbe hil da 101 urte zituela

### **1991ko abenduaren 31a**

Saran izan naiz Pilar ikusten. Nahiko ondo dago. Bertan jarraitzeko asmoa du. Joxe Mari, iloba, sukaldeko armairua konpontzen ari da; laguntzen aritu natzaio. Salda atera dit mahaira. Sukaldeko egutegia abenduaren 28an dago geldia eta erlojua ere geldia dago hamabiak 7 minututan. Hotz handi kanpoan. Luis Mari Ibisate etorri zaio lore-sorta eta guzti. Jendea oso ondo portatu omen zaio. Gauean Donostiako iloba batengana omen doa afaltzera. Gaur bazkaltzeko Lore Auzmendi-eta omen zituen etortzeko. San Migeleko mezetan izan omen zen, baina ez omen doa beste inora, ez Sarara eta ezta Mendabiara ere. Gure etxera azalduko omen da halako batean.

### **1996ko ilbeltzaren 4a, osteguna**

Goizean Saran izan gara Joantxo anaia bere umeekin eta ni geurearekin. Iristean kanpoko jendea zebilen uste izan dugu, baina bertakoak ziren. Pilar kanpoan zebilen. Normalean sukaldera joan ohi gara, baina gaur sala handira eraman gaitu. Makina bat kontu nahastu dugu: Eguberriak, osaba Joxemiel, eguraldia, Josetxo Zubiaurrek ekarri berri duen *Ritos Funerarios* izeneko liburua. Haurrek Eguberrietako zenbait kantu abestu dituzte eta limosna ederra eman die Pilarrek. Larriek kafea eta haurrek *kas* hartu dute. Haurrak ez dira gelditu ere egin, bat ikusi, beste ukitu; hala ere, ez dute ezertxo ere puskatu.

Gerra sartu zenean, Pilar “iitan” ari omen ziren Peruenezarren. “Naparrak karreteran oska pasau zienen: *pakekiñ gatoz*” esaten omen zuten”. Pilarren aitak hala erantzun omen zien: “*pakea, len e emen paken gerek*”.

Orain dela gutxi ekarritako liburu handia ikustera eraman gaitu Joxemielen koartora; eskularruz erabili behar omen da eta kaxa baten bezala sartuta dago.

Iloba Eneritzek zakurrari jana ematen ikusi nahi zuen eta Pilarrek eman egin dio.

### **2007ko abuztuaren 22a**

Goizean San Gregorion izan naiz. Plazan ez zegoen arimarik ere. Artadi elkarte-ko pertsianak behe-behean eta Zelai frontoian fruitu-saltzailea jendea joan zain (9:30). Intza Barandiaran eta bere lankidea Sutegitik azaldu dira gosaltzen izanda.

Langelara igo eta ibilbide baten audioa aztertzen aritu gara.

Beherakoan Saran sartu naiz. Badaezpada ere Etxetxoberrira igo naiz. Tinbrea jotzen asmatzen majo kostatu zait. Joxemarik ireki dit atea eta kontu kontari aritu gara. Laster zen Mariatxo emaztea eskaileretan behera. Elkarrekin joan gara Sarara. Atea giltzaz ireki eta ezkaratzean neskamearekin egin dugu topo; ilehori eta gaztea. Euskaraz hitz bakar batzuk egiten ditu baina, erdaraz ere aritu da.

Pilar jaikita zegoen, eserita, leiho aldera jarrita, bi eskuak gurutzatuta eta hankak aulki txiki baten gainean zituela. Nire diosalari ez dio kasurik egin. 96 urte ditu. Neska-meia betazala irekiarazten saiatu da, baina alferrik. Mariatxo ere saiatu da hoska, baina alferrik. Bera halaxe dela jardun dugu kontutan Mariatxok eta biok: edadea, eguraldia, osasuna, gaurko mundua ...

Ordu erdiren buruan alde egin dut; eskaileretan mapa bati argazkia atera diot.

### **HAUSNARKETA: PILAR BARANDIARAN, ILOBAREN BEHARRA**

Ezagutzen dutenek gauza bera diote: eskerrak Pilarri! Bizitza guztia osabaren inguruan. Bera izan da itzala, errainua, ingurua, iloba ... Etxearen arduraduna, osasunaren jagole, etxeoandre, familia askotan bezalaxe. Telefonoa hartu, atea zabaldu, loreak zaindu, baratza ... Jende hartu, jende haundia, jende "haundia", jendea. Herrikoak, bertakoak hobe; euskaldunak nahiago. Euskarak sortzen baitu bidea. Zahar, gazte eta haur; andrazko nahiz gizonezko; erlijioso eta laiko.

Argazkietan agertzen ez dena maite du. Zerbaitekin datorrena aukeran hobe zerbaiten bila datorrena baino.

Eguneroko gauzak eta gaiak ditu gogozko: eguraldia, lana, bizimodua, auzoa, herria, jana, gazteria, euskara, bakea, osasuna, ... hizketa-gai. Pilar izan da Sarako ondarearen zaintzaile. Pilar Sarakoa.

### **Salako aulki zaharra**

Saran izan denak badaki zertaz ari garen. Hantxe dago, orain ere, mahaiburuan. 1991. urtea ezkeror, ordea, hutsik. Bertan jesartzen zen Joxemiel norbait zetorkionean. Osterantzean, salako leiho ondoan zuen lanleku jakina, Muski mendi aldetik iristen zitzaion argi isla bizitzaren indar eta lagun zuela.





(Jose Miguel de Barandiaran Fundazioa)


Hilez gero, bisitan doazen batzuk eseri ohi dira bertan. Pilar ilobarentzat, ordea, leku sakratu bilakatu da, eta ezin du, ez du adorerik; errespetua, gurtza, mirespena. Han dago aulkia eta Joxemielek mundu honetatik joatean utzitako hutsartea ere bai, aulkia lekuko. Han dago baina ez datza.

### Udazkeneko solasaldia

1987ko agorra. Goizeko 12ak aldean Murkondoko Sara etxean, Joxemiel eta Pilarren arteko solasa.

- *Aizán, jun al aiz kártan billa?*
- *Ez, oain bazkarié prantáu bea et, eta geóxeagó júngo naiz. Dána dalá, gaur usté et bea etóiko dála, gáuza ásko daréla ailláuta-ta.*
- *Ondó zeón, zéan zai neón da, júntzan Egóarritán Diputazioá biáldu netunán orrí atzúk, ta argíttaratzeakó ikusi eññ nai zetunát, bestela báakíñ...*
- *A, eméntxe a!*
- *I, Pilár, esáión sártzeko, emákomezko orí ezáutzeko gogóa bazéukenát. Ta ga áñneará, éskerrák emán bear tzonát gúeatió ártze ittún lánakatió.*
- *... /*
- *Osoá, etói máiiá, bázkarié prónto dao-ta.*

- *Bélexé nijón!*
- *Osoá, porrúsaldeá óztu éingo zaió.*
- *.../*
- *Gaur beándu xamár ez al gaitzén?*
- *Ez, ne ustéz betíko mun gailtzé; gaur beórri daillé beándu, ez al dakí góizen zéan bílla zénbat dénboaán ibílli dan?*
- *A bai, géo sanmártindár gazté at diñát etortzeko -ta, áurreko atén papér batzúk emán niotzanán -da, ak ékartzeá etóiko en.*
- *Bai, baákit zeĩnetakoa dan, oriñ amándreá zan ba Xantíxaletán Lárbuá gáztanberekín júten tzaná.*
- *A, Aitzikó Marián illóba izíngo den úrdun? Ue noiz azáldukó eotén giñuztenán gaztanbereá játeko. Arrék e, gajók, boróndatéik ónenakín ékartzen tzinán, nundió ta Irúzulotakó arrikarí ártatió. Ekái ta, gáĩneará, óndo ekái, gátzurén árrastóik pé.*
- *.../*
- *Pilár, zein dén até-joká?*
- *A, iñor éz.*
- *Bai, nórbaitt báonán.*
- *Saltzáille órittakoa zán, guk eztaukúla ezérren prémik, esán diót.*
- *.../*
- *Gaur e, auskáló, téstigun bát izíngo oán da, Pílarrek etzik égié ésan.*
- *Orittan é badáre éuskaldun gárbik. Múndun ákabereá dála-ta, ólako kúntukin íbil-tzen dié.*
- *A gizájok, iñorrek étzekik ta órik jakíngo diareá.. Ála ré, gizón orikín eún báten pózik itzéngo níkék, áittu béintzat, baiño Pílarrek áiden biáltze izkík, ordeá.*
- *.../*
- *Ze berrí zeók San Mártin alde ortán?*
- *Ántxe, jéndeá or daillé bat eta beste, zéako zubie kónpontzen ái dié.*
- *Nun tzeók zubí ori?*
- *Zéan gizoná, Urkúolatik góra gatózelá, Báindin páren érrekaz béstaldetió badáu ba etxé at, Bárretxe da úe.*
- *Bai óri bazékiát. Gáĩneará, oáiñ dala gutxí izín gaittúk Báindín. Nortéamerikakó enbájadoreá Isráelén daóna etói oán. Márkeá dék baiño, BARÁNDIARÁN BA-RÁNDIARÁN oán. Pentsáu zak, ólako gizoná ta be áurrekon áurrekon... etxéko súkaldén be burúe ikúsi zonén, gizon árrek barrún sentítu zóna.*



*Pilar Barandiaranen emaria \**  
*Deia eta Berria (2008-01-04)*

AZKENEKO orduak herenegungoak izan ziren. Ohiturari jarraituz, urtez askotan joan izan gara Sara etxera; batzuetan zerbaiten berri jakin asmoz, beste batzuetan bere bizitzaz eta iritzi-guraz eta beste batzuetan kontu-kontari.

Joxemiel Barandiaranen urtebetetzea zela eta, *Berri onakin gera* izeneko eguberri-abestia eskaintzera, bizi zen artean, behintzat ere joan ohi ginen.

Hura joan zen eta iloba geratu zen, osabaren errainua zaintzearren. Harrezkero Pilar iloba izan da Sara etxea, bertako ondarea eta inguruaren zaintzaile leiala. Bitartean, ordea, lehen osaba zaharra zen artean, iloba huts zen, ez zuen adinik, zaharra osaba zen. Hura hilez gero, hasi zen Pilarren zahartzaroa. Lehen osaba zaintzen, gero bere burua zaintzen eta azken urteotan bere ilobek zaintzen.

Urteak eman ditu Pilarrek mundu honetan, ia 100 urte.

Bazekien osabaren berri, bazekien osabaren adiskideren berri, bazekien nola-halako bisitari izeneko berri ere. Gauza asko zekitzan Pilarrek: ikusi eta gorde. Batzuek aipatu ohi zituen sukalde bazterraren epelean, baina besteak berak eraman ditu eta halaxe hobe. Bazekien hilez gero, Sara etxea Barandiaran Fundazioaren eskuetara zihoala, bazekien...

Eta bitartean zain egon da, presarik gabe baina zain: "Osaba zai zeukeat", askotan esan ohi zuen.

Atzo ere hantxe izan ginen. Urtez zaharrak bereak emanak zituen. Goizeko izotza lainoak jan bazuen ere, negu-aide umela zerion eguraldiari eta etxeko lorioan eman-

dako tartean, asko erraz nabari zitezkeen Gaztaiñaundi eta Olata aldeko gaintzurdea. Arrats aldea zen Murkondo auzoan.

Sarara hurbildu ahala, bisitariren batzuen aztarna eta hizketa-hotsa zegoen. Badaezpada ere, ez naiz ausartu atea jotzen. Halako batean, eskaileran behera oin-hotsa. Bisitaren amaiera zirudien eta atea ireki dutenean, Ataungo alkate Bittor Oroz, bere emaztea eta Rosa Goñi zinegotziarekin egin dut topo.

Berritsu baina kopetilun azaldu dira. Berriketalditxo bat elkarrekin lorioan egin ondoren, bakoitzak bere bideari heldu diogu eta ni Joxemari ilobarekin geratu naiz solasean atarian. Makina bat kontu nahastu ditugu: eguraldia, urte-garaia, erretiroak, gaurko bizimodua, osasuna, baratza, izebaren egoera, izeba hil ondorengoa Goizean Mari Karmen Garmendia eta Joan Joxe Agirre lekaide beneditarra.

Hotzak aztitu gaituenean, Pilarren logelara igo gara. Hantxe zegoen ohean etzanik eta lo. Azkenekoz, udan ikusi nuenean, balkoi aldera jaikita zegoen kanpora begira eserita. Orduan ere ez ninduen ezagutu eta, jakina, zuka aritu zitzaidan, beti hika aritzen zitzaidana.

Lo zegoenez, ederki eta lasai zirudien eta ez nuen esnatzeko inongo asmorik, baina gelaren epelaz baliatuz, nire esku hoxkarra bere besoan ezarri diodanean, orduantxe zabaldu ditu begiak. Iloba nor naizen adierazten saiatu da, baina alferrik; ez zuen begirada finkatzen. Minez den galdetu diot eta ezetz erantzun dit. Nire aurretik ikusten zein izan dituen galdetu diodanean, orain dela urte askotako bere ezagun eta etxekoeneko, Munduate baserrikoak hain zuen, aipatzen hasi da. Errezatzeko esan diot eta horretantxe ari dela esan dit, baina besterik ez.

Hura izan da azken konbertsazioa. Loari eman dio eta bakean geratu da.

Iloba eta biok hizketan jarraitu dugu eta pixkanaka etxeari bixtaizo bat eman ondoren eta atarian, aran-arbolaren ondotik errekaldera begira ginela, elkarrekin beste egon luze bat egin dugu.

Joxemari iloba bere burutazio eta eginbeharrekin utzi eta berrizko agindua emanez alde egin dut, biharamuneko albisterik bururatu gabe. Pilar, osabaren urtebetetzea mundu honetan igarotzeko ahaleginetan aritu ondoren, lasai eta baketsu joan zaigu eguzkiaren sustraietara.

Gaurtik aurrera, Pilarrik ez dugu aurrean izango, baina han ibiliko dira Joxemiel eta biak guri, ataundarroiei eta euskaldunoi herriaren arnasa ez galtzeko eta gizabidea zabaltzeko zein bidetxurretan ibili behar dugun gogorarazten; goian bego Pilar!

**KONTSULTAGARRI:**

- *Egunerokoak*. Jexux Aizpurua Barandiaran. 1991 (argitaratu gabekoak).
- *Barandiaran*. Jon Aizpurua/Jexux Aizpurua. Elkar. 1999.
- *Joxe Migel Barandiaran (1889-1991)*. Jexux Aizpurua Barandiaran/Jon Aizpurua Barandiaran. Bidegilea.k Kultura Saila, Eusko Jaurlaritzza. 2000.
- *Pilar Barandiaran, Jose Migel Barandiaranen iloba*. In DV, 2000-12-31. Joxe Begiristain kronikaria.
- *Pilar Barandiaran*. Beñat Doxandabaratz, In Euskonews & Media, 179 zk (2002/9/13-20).
- *Pilar Barandiaran*. Joxemartin Apalategi Begiristain. In Munibe (Antropologia-Arkeologia) 57, 2005 · Homenaje a Jesús Altuna S. C. Aranzadi. Z. E. 432-433 or. Donostia.
- *Pilar Barandiaran*. Migel Anjel Elustondo, In Argia, 2005/06/26.
- *La Guerra Civil en Euzkadi: 136 testimonios inéditos recogidos por Jose Miguel de Barandiaran*. J.M.Gamboa eta J. C. Larronde. Bilbo: Bidasoa, 2005.
- *Pilar Barandiaran*. OMENALDIA. JMB Murkondo. 2006.
- \* *Pilar Barandiaran emaria*. Jexux Aizpurua Barandiaran. In Deia, 2008-01-04. In Berria, 2008-01-04.
- *Ataun despide a Pilar, sobrina y ayudante de José Miguel Barandiaran durante medio siglo*. Felix Ibargutxi. In Diario Vasco, 2008/01/08.
- *Pilar Barandiaran, goian bego*. Iñaki Anasagasti. In [http://ianasagasti.blogspot.com/mi\\_blog/2008/01/pilar-barandiar.html](http://ianasagasti.blogspot.com/mi_blog/2008/01/pilar-barandiar.html).
- *Al despedir a Pilar Barandiaran*. Henrike Knörr. In Correo (2008/01/08).
- *Itzali zaigu Sara etxeko emakume ona*. Henrike Knörr. Herria (2008-01-24).
- *Pilar Barandiaran hil da, Joxe Migel Barandiaran bizi guztian zaindu zuen iloba*. In Berria (2008/01/02).
- *Osabaren bidaide eta sostengu*. Arantzazu Muñoa. In Berria (2008-01-03).
- *Pilar Barandiaran*. In Saski-Naski (2008/01/04).
- *Azken egur goxoa eman zitzaion Pilar Barandiarani San Gregorion*. J.R. Munduate. In Diario vasco (2008/01/05).
- *Agur eta ohore, Pilar*. Aitor Aldasoro. In Berria (2008/01/05).
- *Pillarri jarritako bertsoak*. Sabino Auzmendi. In Nondik 29 (2008ko uztaila).
- *Pilar Barandiaran hil zen Ataunen, 96 urterekin*. In 2008 Urtekaria. Goierriko Hitza/Berria.
- *José Miguel de Barandiaran. Diario personal. Volumen II (1936-1953). Durante los años de su exilio el País Vasco Continental*. Colección Sara nº 8, tomo II. Barandiaran fundazioa. 2009.